# ARKAIA

– Araba / Álava –

Arkaia herria Arabako hiriburutik 6 km-ra dago. Gasteiztik joanda, A-2130 errepidea hartu behar da Otazuraino, eta, handik, gero, ezkerreko saihesbidea, A-4117 errepidetik kilometro bat eginez Arkaiara heldu baino lehen. Beste aukera bat N-104 hartzea da, eta, gero, Elorriagan, A-132 errepidera sartu eta berehala, eskuinetara Arkaiara joateko bidea hartzea.

Herrian eta inguruan, erromatar termen hondarrak daude, goi-inperioaren garaiko etxe aberatsean; bai eta Arabako lurraldea zeharkatzen duen erromatar galtzadaren hondarrak ere. Donemiliagako Rejako agirian *Arcabia* izenarekin azaltzen da aipatuta, eta *Harhazua*ko barrutian goldeburdina bat ordaintzen zuela zehazten da. Horrez gain, Arkaiako parrokia 1226an Gasteizko Parrokien Kabildo Unibertsaleko Atxibategiaren kontra auzia jarrita zuten parrokien artean ageri da. Alfontso X.ak 1258an Gasteizekin lotu zuen herrixka zaharretako bat izan zen.

La localidad de Arkaia se encuentra situada a escasos 6 km de la capital alavesa. Desde Vitoria se accede por la carretera A-2130 hasta Otazu, donde se toma el desvío a la izquierda durante un kilómetro por la A-4117 hasta llegar a Arkaia. Igualmente se accede por la carretera N-104, y tomando en Elorriaga la A-132 para doblar pronto por un acceso que lleva a Arkaia por el lado derecho.

El pueblo y las inmediaciones conservan restos de unas termas romanas en una *mansio* o vivienda rica de época alto imperial y también de la calzada romana que atraviesa el territorio alavés. Ya en la Reja de San Millán aparece citada como *Arcabia* pagando una reja de hierro en el alfoz de *Harhazua*; también encontramos a Arkaia como una de las parroquias que sostenía pleito en 1226 contra el Archivo del Cabildo Universal de las Parroquias de Vitoria. En 1258 será una de las aldeas viejas unidas a Vitoria por Alfonso X.

## *Natibitate eliza* / *Iglesia de la Natividad*

Beranduko gotikoko eraikina da, XVI. mendekoa, eta elizate neoklasikoa du. Hormetan arrasto erromaniko batzuk ageri dira, arku zatiak, portada erromanikoaren arrasto batzuk edo inpostak, esaterako, batez ere dorrerako igoeran. Iparreko horman kordoi-ahurraren forma duten harburuak daude; eta mendebaldekoan, saietera-leihoak, antzinako eliza erromanikokoak izan daitezkeenak.

Arkaiako arrasto erromaniko interesgarriena bataiarria da, oso ederra eta mudejar arkitekturatik gertukoa. Apaindurarik gabeko oin sendoak eusten dio. Oinak motibo geometrikodun hiru zerrenda ditu: erdikoa zabalena da, eta txandaka ageri diren bi tamainako zirkuluak ditu elkarrekin lotuta; handiek zortzi puntako izarrak dituzte inskribatuta, eta txikiek, puntudun diskoak. Beste bi zerrendak zirkulu zentrokidez daude apainduta, eta tarteka motibo geometrikoak ageri dira ardatz modura. Bataiarriaren zati bat hondatuta dago, sartuta zegoen hormatik kendu egin zuten eta.

Se trata de un edificio gótico tardío, ya del siglo XVI, con un pórtico neoclásico. En sus muros se pueden ver algunos restos románicos, como fragmentos de arco, restos de la portada románica o impostas, sobre todo en la subida a la torre. En el muro norte se aprecia una serie de canes en forma de caveto, y en el occidental ventanas aspilleras, que podrían pertenecer a la primitiva iglesia románica.

El resto románico de mayor interés conservado en Arkaia es la pila bautismal, muy bella y cercana a lo mudéjar. Descansa sobre un pie grueso y sin decoración, decorada por tres franjas de motivos geométricos: la central, más ancha, recoge un entrelazo de círculos de dos tamaños alternados, con estrellas de ocho puntas inscritas en los mayores y discos con punteado en los pequeños. Las otras dos franjas se decoran con círculos concentricos, alternados con motivos geométricos en forma de huso. La pila, actualmente exenta, está parcialmente deteriorada, dado que fue arrancada de la pared donde se situaba.



*Bataiarria* / *Pila bautismal*

Arkaiako bataiarriak antzekotasun handia du Lukukoarekin. Dena dela, azken horrek apaingarri finagoak eta ugariagoak ditu. Hala ere, bietan azaltzen da zortzi puntako izarraren motiboa, eta antz handia dute biek; beraz, zirkulu edo tailer berekoak dira. Zortzi puntako izarrak 8 zenbakiaren sinbolismoa adierazten du, eta arte kristauan, Elizako kide bataioaren bidez egiten dela esan nahi du.

Testua eta argazkiak: REA

La pila de Arkaia tiene similitudes con la de la localidad de Luco, aunque esta última presenta temas decorativos más finos y abundantes. Aún así, ambas recogen el motivo de estrella de ocho puntas con gran similitud, por lo que pertenecen al mismo círculo o taller. La decoración de estrellas de ocho puntas remite al simbolismo del número 8, que en el arte cristiano se relaciona con la entrada en el seno de la Iglesia por medio del bautismo.

Texto y fotos: REA

## *Bibliografia* / *Bibliografía*

Bilbao López, G., 1994, pp. 33-34, 109-110; López de Guereñu, G., 1962, pp. 106-107; López del Vallado, F., 1921b, pp. 870-871; Portilla Vitoria, M. J. *et alii*, 1975, IV, pp. 232-233, fig. 336; Portilla Vitoria, M. J., 1983, IV, pp. 58-59; Portilla Vitoria, M. J., 1991, p. 135; Vegas Aramburu, J. I., 1985, pp. 56-59.